

**EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, 2023KO MAIATZAREN 19KOA, 2023KO BIRBAREMAZIO-EPEA IREKITZEN DUENA ETA GARBIKETAKO ETA SUKALDEKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIO-ZERRENDAK EGUNERATZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUENA.**

Ebazpen honek bi helburu ditu: batetik, urteko birbaremazio-aldia irekitzea garbiketako eta sukaldeko zerrendetan daudenentzat; eta, bestetik, Ordezkaidearen bidez egindako eskaintzak eraginkortasunez kudeatzeko, zerrenda horiek eguneratzea, aldi baterako lan-eskaintzak benetan lanerako prest daudenentzat izan daitezen.

Bi prozesu horiek sindikatuekin negoziatu dira, eta gehiengo sindikalarekin Hezkuntza Saileko Lan-kontratuko Langileen Negoziazio Mahaiaren 2023ko maiatzaren 10eko Akordioa sinatu da.

**2023ko BIRBAREMAZIOA.**

2023ko maiatzaren 10eko Akordioak hitzamen kolektiboko III. eranskineko I. titulua aldatzen du, garbiketako eta sukaldeko langileen hautagai-zerrendak kudeatzeari buruzkoa hain zuzen ere. Birbaremazioari eragiten dioten funtsezko alderdiak honako hauek dira:

“2023/24 ikasturterako, zerrendak Hezkuntza Sailak 2022ko abuztuaren 31n lan-kategoria bakoitzean eta lurralde bakoitzean eta lurralde bakoitzean emandako zerbitzu-denboraren arabera antolatuko dira. Antzintasuna egunetan adieraziko da. Urtero, birbaremazioarekin batera, hautagaiei zerrendetan aldaketak egiteko aukera eskainiko zaie. Hala, lanaldi partzialeko eta/edo osoko zerbitzuak lurralde batean edo gehiagotan ematea aukeratu ahal izango da”.

1. Sail honetako garbiketako eta sukaldeko birbaremazio-zerrendetan agertzen diren hautagaiei aukera ematen zaie zerrenda horietan aldaketak egiteko, lanaldi partzialaren eta/edo osoaren aukeraketari eta lurralde bat edo batzuk aukeratzeari dagokienez.

2. Hautagaien fitxak <https://hezigunea.euskadi.eus/eu/web> orrian daude eskuragarri.

Fitxetan, datu pertsonalez gain, kategoria bakoitzean (sukaldariak eta garbitzaileak) eta lurralde bakoitzean (Arabán, Bizkaian eta Gipuzkoan) egiaztatutako zerbitzu-denborak agertzen dira, baita hautatutako lanaldi-erregimena ere. Agertzen diren zerbitzuak 2022ko abuztuaren 31ra arte zenbatutakoak dira.

3. Birbaremazio-zerrendetako hautagaiek fitxetan egin nahi dituzten aldaketa guztiak aplikazio telematikoaren bidez egin beharko dituzte. Izangaiek gida zehatz bat dute eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/Atala: Lan-arloa->Langileak->Ordezkapenak egiteko hautagaiak->Irakasle ez diren langileak->Garbiketako eta sukaldeko. Birbaremazioa>)

Kontuan hartu beharreko gaiak:

**Datu pertsonalak:** hautagai bakoitzak bere fitxan agertzen diren datu pertsonalak aldatu ahal izango ditu (helbidea, posta elektronikoa edo telefonoak).

**Lanerako prest egotea.** Hautagai bakoitzak aukeratu ahal izango du zein lurraldetan eta lanaldi osoan eta/edo partzialean egon nahi duen, zerbitzuak dituen edo ez kontuan izan gabe; eta, ondorioz, aukeraturako edozein lurralde eta lanaldi motatan zerbitzuak emateko dei egin ahal izango zaio.

4. **Fitxa aldatzeko epea.** 2023ko maiatzaren 22ko 09: 00etatik 2023ko ekainaren 12ko 23: 59ra izango da, biak barne, aplikazio informatikoaren bidez.

Hautagaiak nahi adina aldiz sartu ahal izango dira aplikazioan kontsulta egiteko edo aldaketak egiteko, birbaremazio-epela irekita dagoen bitartean. Gordetako azken aldaketak izango dira ondorioak dituztenak.

Fitxetan aldaketarik egin ezean, 2022-23ko birbaremazioko datuak hartuko dira kontuan.

5.- Fitxak aldatzeak berekin ekarriko du fitxetan jasotako datuak Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako aurreikuspenen arabera erabiltzeko berariazko baimena. Informazioa datu pertsonalen fitxategi batean sartuko da, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira une oro, lege horretan eta lege hau garatzen duten gainerako arauetan adierazitako moduan.

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/orrialdea> (Atala: Langileak→ Ordezkapenatarako izangaiak→ Irakasle ez diren langileak→ Garbiketa eta sukaldaritza.Birbaremazioa) helbidea erabiliko da deialdi honen xede diren sukaldeko aldi baterako kontratazio-zerrendei dagokienez hartzaile anitzen ebazpen eta egintza guztiak argitaratzeko edo jakinarazteko.

#### **GARBIKETAKO ETA SUKALDEKO ZERRENDAK EGUNERATZEA.**

Erreserba-zerrendei dagokienez, 2023ko maiatzaren 10eko Akordioak honako hau adierazten du:

“Ordezkabidearen bidez egindako eskaintzak eraginkortasunez kudeatzeko, garbiketa- eta sukalde-zerrendak eguneratuko dira, eta aldi baterako baja emango zaie 2023ko maiatzaren 31tik atzera eginez azken hiru urteetan inolako kontratazioarik izan ez duten hautagai guztiei”.

“ Aurreko paragrafoak eragindako pertsonak erreserba-zerrenda bat osatzera igaroko dira, eta zerrenda horretan egongo dira deialdien zerrenda arruntera itzuli nahi dutela berariaz adierazi arte, eta, horrela, Administrazioari helaraziko diote aldi baterako beharrak estaltzeko prest daudela. Eskaera hori urtero egin ahal izango da berariaz horretarako gaitzen den aldian –oro har, birbaremazio-eskaerarekin bat etorriko da -, eta datorren ikasturte osorako erreserba-zerrendan egong da, prestasun-eskaera espresurik ez badago. Zerrenda horietan, gehienez ere, bost ikasturtez egon ahal izango da. Ikasturte horiek igarota, behin betiko baja emango zaie erreserba-zerrendako kideei”.

1. **Erreserba-zerrendak.** 2023ko maiatzaren 31n azken hiru urteetan inolako kontrataziorik izan ez duten hautagaiak, aldi baterako baja-egoeran, erreserba-zerrendetan sartzen dira.

Zerrenda horietako pertsonak zerrenda arruntera itzuli nahi dutela berariaz adierazi arte horretarako gaitutako aldian, erreserba-zerrendetan jarraituko dute. Eskaera hori, oro har, urteko birbaremazio-aldiarekin batera egingo da.

2.- Langile horien zerrenda ebazpen honen I. eranskinean jasota dago; 2023/24 ikasturterako zerrendetan egoteko interesa dutenek posta elektronikoz eskatu beharko dute [hezk.sind@euskadi.eus](mailto:hezk.sind@euskadi.eus) helbidera, NANaren kopiarekin batera. Prestasuna, zerrendetan alta eskabidean aukeratu ziren lanaldi osoko eta/edo partzialeko aukerekin ezarriko da. Lurraldeei dagokienez, alta eskaeran aukeratu zen guneari dagokiona ezarriko da.



2023/24 ikasturterako libre dagoela eta indarrean dauden zerrendetara igaro nahi duela jakinarazteko epea: 2023ko maiatzaren 22ko 09: 00etatik 2023ko ekainaren 12ko 23: 59ra.

Horregatik guztiagatik, apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 10. artikulua ematen dizkidan ahalmenez baliatuz (apirilaren 24ko EHAA, 78. zk.), honako hau

#### **EBATZI DUT:**

**LEHENENGOA.-** Aldi baterako lan-kontratuko langileen birbaremazio-prozesua irekitzea 2023-24 ikasturterako, baldin eta garbiketako eta sukaldeko langileen kolektiboan zerbitzuak egiaztatzen badituzte. Aldaketak egin ahal izango dira <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> web-orrian eskuragarri dauden fitxetan, 2023ko maiatzaren 22ko 09: 00etatik 2023ko ekainaren 12ko 23: 59ra arte.

Aldaketarik egin ezean, 2022-23ko birbaremazio-fitxako datuak hartuko dira kontuan.

**BIGARRENA.-** Erreserba-zerrendak agertzen diren I. eranskina Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratzea. Datorren 2023/24 ikasturterako, lanerako prest egon nahi dutenek posta elektronikoz eskatu beharko dute [hezk.sind@euskadi.eus](mailto:hezk.sind@euskadi.eus) helbidera, NANaren kopiarekin batera, 2023ko maiatzaren 22ko 09: 00etatik 2023ko ekainaren 12ko 23: 59ra arte.

**HIRUGARRENA.-** Ekainaren bigarren hamabostaldian beste ebazpen bat egitea, 2023/24 ikasturtean aldi baterako beharrak estaltzeko garbiketako eta sukaldeko zerrendak osatzen dituzten hautagaien zerrenda argitara emanez. Zerrenda hori zerbitzuak dituzten langileak birbarematzeko prozesuaren eta erreserba-zerrenden emaitza izango da. Ebazpen hori behin-behineko zerrendekin batera argitaratuko da <https://hezigunea.euskadi.eus/eu/> webgunean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 19a.

**LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIA**

**Blanca Guerrero Ocejo**